



ESKABIDEA ON-LINE BETETZEKO OHAR INPORTANTEAK. PERTSONAL IRAKASLEAREN ZERRENDAK

Eskabidea formalizatzeke:

Eskabidea betetzeko eta dokumentazioa aurkezteko ON-LINE egin behar dira, inongo erregistrotara joan beharrik gabe. Informatika-ekipamendurik ez izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren KZgunea zentroetara joan daiteke, aurretiko hitzorduaren eskaera eginez.

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatuz, ixten ez bada, eskabidea ez dela aurkeztu interpretatuko da.

Prestakuntza akademikoa:

On-line eskabidearen prestakuntza akademikoaren atalean, zerrendara sartzeko baldintza gisa eskatutako titulu ofizialak besterik ez da adierazi behar.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna:

Hezkuntzako 2.HE edo baliokideren bat –Europako marko bateratuko C1-irekitako zerrendetarako, baliozkoak dira hurrengo tituluak:

- HAEEko 3. HE (IVAP)
- HABEko 3.maila
- Osakidetzako 3.HE
- Ertzaintzako 2.HE
- Hezkuntzako 2.HE
- EGA
- Euskaltzaindiaren D titulua
- Labayru Institutuaren 3. maila (1982-09-19a baino lehenago eman bada)
- Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Ziurtagiria edo 5. maila (RD 47/1992 ikasketa-plana)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Maila (C1) edo Hizkuntza-eskola ofizialetako beste batzuk, C1 mailaren arabera.
- Unibertsitatearen C1 ziurtagiria, euskarazko titulu eta hizkuntz ziurtagiriak egiaztatu behar izatetik salbuesteari buruzko 47/2012 dekretuak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Hezkuntzako 1.HE edo baliokideren bat –Europako marko bateratuko B2- irekitako zerrendetarako, baliozkoak dira hurrengo tituluak:

- PL2-IVAP
- HABE-2
- PL2-Osakidetza
- PL1-Ertzaintza
- PL1-Irakaskuntza
- HLEA-Hezkuntza Berezia
- GUMA- (1993/04/02ra arte)
- IGA- (1993/04/02ra arte)
- 4º EOI (47/1992 ED Ikasketa plana)
- HEOko Maila Aurreratua (1629/2006 Ikasketa plana)
- Ikastexte publikoaren ziurtagiria, 47/2012 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian adierazita.
- Ikastexte pribatuaren ziurtagiria, Hezkuntzako Ikuskaritzak onztat emanda, 47/2012 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian ezarrita.

Dokumentazioa aurkeztea:

- Baldintza gisa eskatzen diren titulazioak bakarrik entregatu behar dira on-line. Ez dira merezimenduak aurkeztu behar. Inola ere ez da alegatu edo aurkeztu beharko betekizun gisa eskatutakoez bestelako titulaziorik, ezta prestakuntzarik (ikastaroak, jardunaldiak...) edo zerbitzu-orririk ere, ez baitute prozesu honetarako baliorik.

- Ez da NANik edo sexu-delituen ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta eskabidean bertan baimena ematen bazaio Hezkuntza Sailari kontsulta dezan.

- Ez dira entregatu behar EAEko HEOko, EGAko eta HABEko tituluak, ez eta euskara-salbuespena ere, Euskal Herriko Unibertsitatean lortutako unibertsitate-tituluei dagokienez, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan badaude. Pertsona bakoitzak jakin dezan ea dituen egiaztapenak edo salbuespenak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota dauden, kontsultatu ahal izango du aipatutako erregistroaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu>

- Beste zerrenda-irekiera batzuetan parte hartu badu eta aurkeztutako tituluak eskabideko "Prestakuntza akademikoa" atalean kargatuta agertzen badira, ez dira berriz adierazi edo entregatu behar.



Nortzuek eman dezakete izena zerrenden irekieran

Irekiera hau prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa EZ duten pertsonentzat baino ez da.

Baldintza hori betetzen dutenek EZ dute irekiera honetan izena eman behar, baizik eta beti irekita dagoen deialdian eman behar dute izena, baldintza guztiak betetzen dituztenentzat: ikusi Hezkuntza Sailaren web orriaren esteka “Langileak” – “Ordezkapenentarako izangaiak Irakasleak” – “Aparteko zerrendak irekitzea” - "Irekita jarraitzen diren zerrendak. 2023-2024 ikasturtea".

OHARRA: Kontsultatu Gida aplikazio informatikoarena, eskaera betetzeko eta dokumentazioa aurkezteko, bai eta Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpena ere, irekieraren baldintzei buruzkoa (biak daude argitaratuta sailaren web-orrietan: www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/ eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu>